# ZEZENKETAK-FESTEJOS TAURINOS 2010



Gure herriko zezenketetan hainbat berritasun eta albiste izan genituen, baita nabarmentzeko zenbait gertakari ere.

Pikadorerik gabeko hiru nobillada egin ziren. Berritasun gisa, ostalarien gremioak abuztuaren 20rako antolatu zuen nobilladan, ganadua El Tajo y la Reina ganadutegikoa zen; ganadutegi hori Jose Miguel Arroyo "Joselito" hiltzaile ohiarena eta haren ahaldun Enrique Martin Arranzena da. Beraz, urte askoren ondoren, bi kasta desberdin izan genituen ikusgai: batetik, Atanasio-Lisardo Sanchezena, hau da, Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegikoa; eta bestetik, Domeq eta Carlos Nuñezena, hau da, El Tajo y la Reina ganadutegikoa.

Nabarmentzekoa da, baita ere, Deban urte askoan gertatu ez zelako, zezenko batek (53 zenbakidunak) hankan min hartu zuela eta toreatu gabe geratu zela. Antolatzaileek gestio lan handiak egin ondoren, zezenko horren ordez ganadutegi bereko beste bat jarri zuten, Argel izenekoa (59 zenbakiduna), eta hilaren 17an atera zuten plazara, arratsaldean. Haserre atera zen eta kortan zeuden zezen koldarrei eta ergiei eraso egin zien. Hilaren 18ko entzierroan ere arazo asko sortu zituen; agerian utzi zuen barruko koldarkeria, eta arratsaldean, plazan, berretsi egin zuen.

Entzierroak azken urteetako ikusgarrienak izan dira. Hunkigarrienak hilaren 18koa eta 20koa izan ziren; dena den, 16an ere Debako korrikalarien lasterketa ederrak ikusi genituen. Hilaren 18an, 59 zenbakidunak ez zuen anaiekin atera nahi izan, eta 119 zenbakiduna ateratzea era eragotzi zuen. Taldea, beraz, bitan banatu zen. Aurrean bi ergi zeuden, bi zalkik babestuta; eta atzean beste bi abelburu, hasiera-hasieratik. Korrikalari onek gozatu egin zuten, baina segurtasunaren eta festako giro onaren arduradunak izugarri kezkatu ziren. Behin plazan, ordezko zezenkoak, koldartuta, kontra egin zion zezentokian sartzeari, ia ordu betez. Hilaren 20ko entzierroan taldea multzokatu egin zuten eta zalkiek eraman zuten babestuta, Udal Liburutegi ingururaino. Orduan, zezenko zuriak (28 zenbakidunak) pausoa azkartu eta aurreratu egin zen; taldeak zatituta egin zuen Trekutik plazarainoko bidea.

Nobilladak oso ondo antolatu zituzten, beraz, eskerrik asko egindako lanagatik. Zezendegiko kide batek plaza antolatu zuen, toreatzaileak zegokien lekuan jarriz; hori ere, oso ondo. Bi ohar besterik ez. Batetik, ez da bidezkoa hiru nobilladetan toreatzeko ordena aldatu behar izatea, karteletan gaizki jarrita zegoelako. Nobilleroen antzinatasunari begiratu behar zaio, berriz gerta ez dadin; izan ere, ordenak antzinatasunaren araberakoa izan behar du. Eta bestetik, festak amaitu arte ganoraz jokatu behar dugu. Nork bere protagonismoa dauka, "bakarrik", dagozkion zereginak betetzen dituenean. Zezendegiko kideek ez diote plazari buelta eman behar, bestela buelta eman diezaioketelako, baita ere, kortako arduradunek, aguaziltxoak, zezenketa aholkulariak, bandako zuzendariak... Ganorazko festa baten eta barregarrikeria baten arteko aldea guk uste baino txikiagoa da. Hori, baldin eta ez bada festa barrutik zapuztu nahi, eta seguru asmoa ez dela hori.

En los festejos taurinos que se celebraron en nuestra localidad tuvieron lugar algunas novedades, noticiables y algunos acontecimientos dignos de ser destacados.

Se celebraron 3 novilladas sin picadores, con la novedad de que en la que organizó el gremio de hostelería el día 20 de agosto, el ganado procedía de la ganadería de El Tajo, y la Reina, propiedad del ex-matador de toros José Miguel Arroyo "Joselito" y del que fuera su apoderado Enrique Martín Arranz. Se vieron por tanto y después de muchos años, dos encastes distintos: los Atanasio-Lisardo Sánchez, que es la procedencia actual de las ganaderías del Puerto de San Lorenzo y la Ventana del Puerto, y las de Domeq de diversas procedencias, y Carlos Núñez, en el ganado de El Tajo y la Reina.

También fue un acontecimiento noticiable, porque no se recordaba que hubiera ocurrido en Deba desde hace muchos años, la lesión en una pata del novillo nº 53 en los corrales de Ozio, quedando invalidado para la lidia. Tras laboriosas gestiones, la organización consiguió sustituir el novillo inválido por otro de la misma ganadería, el nº 59 de nombre Argel, que fue desencajonado en Deba el día 17 por la tarde. En el desencajonamiento salió furioso, embistiendo a los mansos y los erales que se encontraban en los corrales. También durante el apartado para el encierro del día 18 dio muchos problemas, dejando muestra de la mansedumbre que llevaba dentro y que, por la tarde, confirmaría en la plaza.

Los encierros han sido de los más vistosos de los últimos años, siendo los más emocionantes los de los días 18 y 20, aunque el día 16 también se vieron buenas carreras de los buenos corredores que hay en Deba. El día 18, el nº 59 se resistió a salir con sus hermanos, impidiendo también la salida del nº 119. La manada quedó pues partida en dos. Por delante, dos erales arropados por los dos cabestros y otras dos reses retrasadas desde el inicio. Una gozada para los buenos corredores, pero una preocupación para los que velan por la seguridad y buen transcurrir del festejo. Una vez en la plaza, el novillo sustituto, fiel a su mansedumbre, se resistió a entrar en los chiqueros durante casi una hora. En el encierro del día 20 la manada fue agrupada y arropada por los cabestros hasta la zona de la Biblioteca Municipal. En ese punto, el novillo jabonero nº 28 aceleró la marcha y rompió la manada, que fue dividida desde la casa de Treku hasta la Plaza.

Bien la organización de las novilladas, por lo que hay que felicitar públicamente el trabajo realizado. Muy bien uno de los torileros poniendo orden en la plaza y ubicando a los toreros en los lugares donde les corresponde. Sólo un par de observaciones: no es de recibo que en las tres novilladas hubiera que cambiar el orden de lidia por estar equivocados en los carteles. Hay que comprobar la antigüedad de los novilleros, que es la que dicta el orden de intervención, para que no vuelva a ocurrir. La otra cuestión es que hay que ser serios hasta el último segundo de los festejos. A cada cual le toca el protagonismo "sólo" cuando actúa cumpliendo con sus obligaciones. No es cuestión de que den la vuelta al ruedo los torileros, porque también lo podrían hacer los responsables de los corrales, el alguacilillo, el asesor taurino, el director de la banda... Entre un festejo serio y una charlotada hay menos distancia de la que nos imaginamos. Salvo que se quiera dinamitar la fiesta desde dentro, que seguro que no es el caso.





## 2010eko ABUZTUAK 16a • 16 DE AGOSTO DE 2010

**Puerto de San Lorenzo** ganadutegiko hiru zezenko (144, 141 eta 37 zenbakidunak) eta **La Ventana del Puerto** ganadutegiko zezenko bat (123 zenbakiduna), guztiak Lorenzo Fraile Martin jaunarenak (Tamames, Salamanca). Ongi aurkeztuak eta satai eta jarrera anitzekoak.

Zintzoak eta suharrak lehenbizikoa eta bigarrena, arrastean txalotuak. Otzana, azeria eta zaputza hirugarrena; joko eskasa eman zuen. Zintzoa, mantsoa eta pase askokoa laugarrena; kemen gutxi zeukan eta tendidua hunkitu gabe egiten zuen eraso.

Debako zezen-plaza: ia betea.

Festako burua Juan Luis Larrea izan zen, Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente eta Espainiako Federazioko presidenteordea.

Agintarien balkoian egon ziren Lorenzo Fraile Martin ganaduzalea eta Alfonso del Valle Lersundi.

**Dejean Dorian** urdin argiz eta atxabitxi kolorez jantzia. Atzeko estokada ia osoa (agurrak). Hondoko eta kontrako estokada eta deskabelloa. Abisua (isiltasuna).

**Miguel Angel Mendoza** bioletaz eta urrez kolorez. Zulaketa sakona eta ia osoa, oso atzealdean. Hiru zulaketa gehiago. Estokada zabala. Abisua (isiltasuna). Atzeko estokada eta erorketa (belarri bat).

Berziers zezenketa eskolako **Dejean Dorian**ek fama asko omen zeukan; hala ere, ez zuen asebete, inolaz ere, sortutako itxaropena. Lehen zezenko handia ez zuen aprobetxatu; belarriak erortzen zitzaizkion plazan sartu zenetik. Ikusleei egin zien eskaintza, baina zezenkoak haren gabezia guztiak jarri zituen agerian. Trebeziaz egin zion harrera kapotearekin, eta trebe aritu zen, baita ere, geroko kite batean; baina muletarekin lehiakidea baino askoz okerrago aritu zen. Arratsaldeko hirugarrena bandari eskaini zion, baina zezenkoak ez zion aukerarik eman. Festa amaitu baino lehen joan nahi izan zuen plazatik, Frantzian nobillada bat zeukalako gauean, eta baimena eskatu zuen; ez zioten eman, ordea, beste nobilleroari ezbeharren bat gertatu eta berriz plazara ateratzea tokatzen bazitzaion ere.

Asko hobetu behar du, zezenketaren munduan ospea izan nahi badu; ezpatarekin gaizki.

Kadizko zezenketa eskolako **Miguel Angel Mendoza** neurritsu aritu zen. Lehen zezenkoari ongi sartu zizkion banderillak, baina muletarekin kaskar samar aritu zen. Zezenkoak bi aldiz armagabetu zuen. Gainera, hilketa izugarri luzatu zuen. Bigarren zezenkoarekin oso gaizki aritu zen banderillekin; muletarekin, ordea, hobeto: eskuin-pase eder eta sakonak eta beste pase arruntago batzuk egin zituen. Bular-pase batean zezenkoak harrapatu egin zuen. Arratsaldeko belarri bakarra eraman zuen. Lehen ergia Alfonso del Valle Lersundiri eskaini zion, eta bigarrena ikusleei eta bandari. Bandak "El gato montés" pasodoblea jo zuen, banderillak sartzerakoan.

Tres novillos de la ganadería de **Puerto de San Lorenzo** nº 144, 141 y 37, y uno de la **Ventana del Puerto**: el nº 123, todos ellos de D. Lorenzo Fraile Martín de Tamames (Salamanca). Bien presentados y de hechura y comportamiento variado.

Nobles y bravos el primero y segundo, aplaudidos en el arrastre. Manso, gazapón y descastado el tercero, que dió un juego muy pobre. Noble y con muchos pases el manso lidiado en cuarto lugar, que tenía muy poco motor y embestía sin transmitir nada a los tendidos.

Plaza de Toros de Deba: rozando el lleno.

Presidió el festejo Juan Luis Larrea, presidente de la Federación Guipuzcoana de Fútbol y vicepresidente de la Federación Española.

Estuvieron en el balcón de autoridades el ganadero D. Lorenzo Fraile Martín y Alfonso del Valle Lersundi.

**Dejean Dorian**, de azul claro y azabache. Estocada trasera y casi entera (saludos). Estocada tendida y contraria y descabello. Aviso (silencio)

**Miguel Angel Mendoza**, de violeta y oro. Pinchazo hondo y casi entera muy trasera. Tres pinchazos más. Estocada desprendida. Aviso (silencio). Estocada trasera y caída (1 oreja).

**Dejean Dorian**, de la escuela taurina de Berziers, venía precedido de gran fama y no respondió, ni de lejos, a las expectativas creadas. Desaprovechó un gran primer novillo al que se le caían las orejas desde que irrumpió en la plaza. Brindó al público, pero el novillo puso de relieve todas sus carencias. Destacó con el capote cuando recibió al novillo y en un quite posterior, pero con la muleta estuvo muy por debajo de su oponente. En el tercero de la tarde, que brindó a la banda, el novillo no le dio ninguna posibilidad. Quiso abandonar la plaza antes de finalizar el festejo porque tenía que participar en una novillada nocturna en Francia, para lo que pidió el correspondiente permiso, que no le fue concedido por si tuviera que volver a actuar, en el caso de que el otro novillero sufriera algún percance.

Debe mejorar mucho si quiere ser algo en el mundo del toro, mal con la espada.

**Miguel Angel Mendoza**, de la escuela taurina de Cádiz, tuvo una actuación discreta. Banderilleó bien al primer novillo, pero en la faena de muleta estuvo flojo. El novillo le desarmó dos veces. Además, se eternizó a la hora de matar. En el segundo novillo estuvo muy mal en banderillas pero mejoró con la muleta, alternando derechazos con gusto y profundidad con pases más vulgares. Fue arrollado en un pase de pecho. Cortó la única oreja de la tarde. Brindó su primer eral a Alfonso del Valle Lersundi, y el segundo al público y a la banda, que interpretó el pasodoble "El gato montés", cuando banderilleaba el espada.


Dejean Dorian


Miguel Angel Mendoza





## 2010eko ABUZTUAK 18a • 18 DE AGOSTO DE 2010



Juan Bellido "Chocolate"

**Puerto de San Lorenzo** ganadutegiko hiru ergi (161, 54 eta 59 zenbakidunak) eta **La Ventana del Puerto** ganadutegiko bat (119 zenbakiduna), Tamameskoak (Salamanca).

Ongi aurkeztuak; salbu bigarrena, begiokerra zelako, eta laugarrena, makurra eta oso handia zelako. Suharrak eta zintzoak lehena eta bigarrena; bigarrena zezenko bikaina. Mantsoa eta toril zalea hirugarrena; ez zuen batere jokorik eragin. Laugarrena ez genuen ikusi; gauza itsusiak egin zituen eta ezkutalekura eraman zuten behin eta berriz, indarra kentzeko.

Nobilladako burua Kontxi Unanue izan zen, Jubilatuen Egoitzako presidentea, eta egoki aritu zen. Plazaren hiru laurden baino gehiago zegoen beteta.

**Juan Bellido "Chocolate"** gorriz eta urre kolorez. Estokada (belarri bat). Bi zulaketa, ia osoak, aurrealdean. Bi deskabello saio. Estokada. Abisua (isiltasuna).

**Victor Alvarez Migueles** pipermint eta atxabitxi kolorez. Aurrealdeko estokada, ia osoa. Hari estokada. Hiru deskabello (buelta). Atzealdeko estokada eta deskabelloa bigarren saioan (agurrak).

Madrilgo zezenketa eskolako **Juan Bellido "Chocolate"**-k, zilarrezko eta izen eta ezizen bereko zezenkariaren semeak, aukerak dauzkala erakutsi zuen. Lehen zezenkoa ona izan zen eta ikusleei eskaini zien. Gustu onez eta sakontasunez toreatu zuen eskuinarekin eta natural on bat edo beste eman zuen, nahiz eta, adarrak zirela eta, zezenkoak asko eskatzen zuen. Hilketan oso ondo. Bigarren zezenkoarekin, Argel mantsoarekin, ezin izan zuen ezer egin, ez zeukalako pase bat ere. Bitan harrapatu zuen eta zezenkoak bere burua defenditu besterik ez zuen egiten; laster joan zen oholetara. Borrokatik duin atera zen.

Madrilgo zezenketa eskolako **Victor Alvarez Migueles**ek oso ondo sartu zizkien banderillak bi zezenkoei, eta ikasle ona zela erakusten saiatu zen, ikusleak girotzeko, hotz baitzeuden. Zezenko bikaina izan zuen, arratsaldeko bigarrena, baina zirrara sortzeko toreatu zuen, gehiago ikusleentzat, sakontasunez baino. Eskuinarekin gustu onez eman zituen pase batzuk eta sariren bat galdu zuen, hilketan huts egin baitzuen ezpatarekin. Laugarrena mantsoa zen eta oso gaizki tratatu zuten; ez zuen paserik sortu, ez baitzen une batez ere geldirik egon. Ikusi genuen zezenkari izan nahi duela.

Tres erales de la ganadería de **Puerto de San Lorenzo**, n$^{os}$ 161, 54 y 59, y uno de la **Ventana del Puerto**, nº 119, de Tamames (Salamanca).

Bien presentados, excepto el bizco segundo y el gacho y grandón cuarto. Bravos y nobles primero y segundo, que fue un excelente novillo. Manso de libro el tercero, que terminó aquerenciado en toriles y que no dio ningún juego. No se pudo ver al cuarto, que aunque hizo cosas feas le hicieron derrotar contra el burladero de forma continuada para mermar sus fuerzas.

Presidió la novillada Kontxi Unanue, presidenta del Hogar del Jubilado, que estuvo bien. Más de 3/4 de entrada.

**Juan Bellido "Chocolate"**, de rojo y oro. Estocada (una oreja). Dos pinchazos, casi entera, delantera. Dos intentos de descabello. Estocada. Aviso (Silencio).

**Víctor Alvarez Migueles**, de verde pipermín y azabache. Estocada delantera casi entera. Estocada que hace hilo. Tres descabellos (Vuelta). Estocada trasera y descabello al segundo intento (Saludos).

**Juan Bellido "Chocolate"**, de la escuela taurina de Madrid, hijo de gran torero de plata de igual nombre y apodo, demostró ser un novillero con posibilidades. En su primero, un buen novillo que brindó al público, toreó con gusto y profundidad con la mano derecha y dio algún buen natural, aunque por este pitón el novillo exigía mucho. Muy bien matando. En su segundo, el manso Argel, nada pudo hacer porque no tenía ni un pase. Fue arrollado un par de veces por el novillo, que sólo se defendía y que se fue pronto a las tablas. Salió de la pelea con mucha dignidad.

**Víctor Alvarez Migueles**, de la escuela taurina de Madrid, estuvo en novillero, banderilleó a sus dos novillos muy bien e hizo intentos de buen alumno de escuela para calentar al público que estaba bastante frío. Tuvo un excelente novillo, el segundo de la tarde, pero toreó de forma efectista, más para el público que con profundidad. Dio algunos pases con gusto con la derecha y perdió algún trofeo al fallar con la espada en la suerte suprema. Al cuarto, un manso al que trataron muy mal, no le dio ningún pase porque no paró un instante. Se vió que quiere ser torero.



Victor Alvarez Migueles







## 2010eko ABUZTUAK 20a • 20 DE AGOSTO DE 2010

Jose Miguel Arroyo “Joselito” hiltzaile ohiaren **El Tajo y la Reina** ganadutegiko lau zezenko (41, 88, 31 eta 6 zenbakidunak). Ongi aurkeztu zituzten eta, oro har, joko ona sortu zuten. Lehena makal samarra, baina ezker adar bikainarekin. Bigarrena azpizuria zen eta nahiko ondo mugitu zen; arrastean ahalkez txalotu zuten. Hirugarrena arrazakoa zen, gorria, eta joko ona sortu zuen. Kopeta gora atera zen, kiribilka paseak amaitzerakoan, baina, hala ere, asko txalotu zuten arrastean. Laugarren atera zen zezenko ederrak joko ona sortu zuen.

Malagako zezenketa eskolako **Antonio Santana** nazareno eta urre kolorez atera zen. Lehenbizikoa izan zen, zezenkarien ordena aldatu baitzuten, antzinatasuna kontuan hartuta. Festako belarri bakarra hark moztu zuen. Bi ergiekin ondo aritu zen eta kapotearekin ondo toreatu zuen, Juan Manuel Hernandezek eta Jonatan Dublino bikainak egindako kiteei erantzute aldera. Lehenbiziko zezenkoa ikusleei eskaini zien; zezenketari dagozkion paseak egin zituen, bi adarrekin. Aurrealdeko estokada batez hil zuen zezenkoa, bi zulaketen ondoren. Eraztun aldetik agurra. Bere bigarren zezenkoarekin, arratsaldeko hirugarrenarekin, adimentsu aritu zen: aurkariaren baldintzetara ondo moldatu zen eta, estokada batez hil ondoren, belarri bat moztu zuen.

Guadalajarako zezenketa eskolako **Juan Manuel Hernandez** gorri-morez eta atxabitxi kolorez atera zen. Oraindik heldugabe dago. Zalantzati aritu zen eta lehenbiziko zezenkoak lau aldiz armagabetu zuen. Atzealdeko estokadaz hil zuen, lau zulaketa egin eta buruaren abisua jaso ondoren. Txaloak. Bere bigarren zezena oso gaizki toreatu zuen, eta taldeak ere gaizki jarri zizkion banderillak. Segurtasun eza nabari zitzaion, zezenkoak behin baino gehiagotan armagabetu zuen eta pase garbi gutxi eman zituen. Estokada oso atzetik emanda akabatu zuen, bost saio egin eta abisua jaso ondoren. Isiltasuna.

Nobilladako burua Haika Aizpurua izan zen, eta ondo aritu zen. Plaza jendez gainezka zegoen.

Guadalajarako zezenketa eskolako **Jonatan Dublino** bikain aritu zen eta kiteei itxura ona hartu genien.

Hiru nobilladetarako zezenketa aholkularia: Paco Salegui. Albaitaritzako laguntzailea: Isidro Aristi.

Aguaziltxoa, Illart Urain, oso ondo aritu zen.

Funtsean, Debako 2010eko Festak arrakasta handia izan zuen, bai jende asko bertaratu zelako, bai festak entretenigarriak izan zirelako.



Antonio Santana



Juan Manuel Hernández

Cuatro novillos de la ganadería de **El Tajo y la Reina**, del matador de toros José Miguel Arroyo “Joselito”, que fueron lidiados con los números 41, 88, 31 y 6. Bien presentados y que dieron en general buen juego. Un poco tardo el primero, que tuvo un excelente pitón izquierdo. El jabonero bragado que salió en segundo lugar se movió de forma aceptable y fue aplaudido tímidamente en el arrastre, Muy enrazado el colorado tercero que dio un buen juego, aunque salió con la cara alta, dando tornillazos al finalizar el pase, fue muy aplaudido en el arrastre. Dio buen juego el precioso novillo que salió en cuarto lugar.

**Antonio Santana**, de nazareno y oro, de la escuela taurina de Málaga actuó en primer lugar tras cambiarse el orden de lidia por razones de antigüedad. Cortó la única oreja del festejo. Mostró muy buenas maneras en sus dos erales y toreó muy bien con el capote, dando réplica a los quites que realizaron Juan Manuel Hernández y el sobresaliente Jonatan Dublino. En su primero, que brindó al público, dio pases muy toreros por los dos pitones. Mató de una estocada delantera casi entera, después de dos pinchazos. Saludó desde el tercio. En su segundo novillo, el tercero de la tarde, hizo una faena muy inteligente, adaptándose a las condiciones de su oponente y, tras matar de una estocada caída, cortó una oreja.

**Juan Manuel Hernández**, de burdeos y azabache, de la escuela taurina de Guadalajara, está muy verde. Estuvo desconfiado e inseguro y fue desarmado hasta cuatro veces por su primer novillo. Mató de estocada trasera después de cuatro pinchazos y de recibir un aviso de la presidencia. Aplausos. En su segundo novillo, que fue pésimamente lidiado, peor banderilleado por su cuadrilla, siguió en la misma línea de inseguridad, siendo también desarmado varias veces y dando muy pocos pases limpios. Mató de estocada muy trasera, tras cinco intentos previos y recibiendo un aviso. Silencio.

Presidió la novillada Haika Aizpurua, que cumplió. Lleno hasta la bandera.

Actuó de sobresaliente las tres novilladas, causando buena impresión en los quites que realizó, **Jonatan Dublino**, de la escuela taurina de Guadalajara.

Asesor taurino para las tres novilladas: Paco Salegui. Asesor Veterinario: Isidro Aristi.

Alguacilillo: Illart Urain, que estuvo muy bien.

En definitiva, la feria de Deba de 2010 puede ser catalogada, sin duda alguna, como de muy exitosa, tanto por la asistencia de público como por lo entretenido de los festejos.